Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3418

2236/2010 EBAZPENA, ekainaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinen bitartez bereganatu egiten baita Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoari atxikiak dauden osasun-zerbitzuetako erakunde publikoek bilera zientifikoak antolatzeko laguntzen deialdia egiteko eskumena.

Aztertuta geratu da idazpuruko gaiari buruzko administrazio-espedientea, eta oinarritzat hartu dira ondoko

GERTAKARIAK

I.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren funtsezko jarduera-ildo nagusietako bat hauxe da: diru-laguntzak ematea, hartara osasun-teknologiaren alor zabaleko azken aurrerapausoak ezagutu eta ezagutarazteko. Horretarako, 90.000 euro esleitu dira 2010eko ekitaldirako.

II.– Zuzendaritza nagusi honek bultzada eman nahi die osasun-sarerako zenbait alor eta eremu zientifikori, eta prozesu horretan lagundu nahi da.

Kasu askotan, zentro bakoitzerako emandako diruzenbatekoak ez dira behar bestekoak izango, eta ondorioz, ezin izango dira finantzatu Osakidetzarentzat zein zentro antolatzaileentzat lehentasunezkoak diren jarduerak.

Halaber, zientziaren gaineko bilera horien garrantzia zentro antolatzailearen eremu geografikoaz gaindi dago.

III.– Beraz, bai arrazoi materialengatik, bai lurraldetasunarekin eta koordinazioarekin lotutako arrazoiengatik, bereganatu egin behar da ekitaldi honetako deialdia jakinarazi eta ebazteko eskumena.

Eta kontuan izanik ondorengo

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Laguntzak deitu eta esleitzeko zuzeneko eskumena dela-eta, ohiko kudeaketa-eremuaren barruan, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Erakunde Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1.d) artikuluak dio Osakidetzako zerbitzu-erakunde bakoitzeko zuzendari gerenteak eginkizun hauek izango dituela:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

3418

RESOLUCIÓN 2236/2010, de 10 de junio, del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, por la que se avoca la competencia para convocatoria de ayudas para la organización de reuniones científicas a las organizaciones públicas de servicios sanitarios dependientes del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

A la vista del expediente administrativo correspondiente al asunto del encabezamiento, y con base en los siguientes

HECHOS

I.– Contándose entre las líneas primordiales de actuación de Osakidetza la concesión de ayudas económicas para la celebración de actos científicos, con la finalidad de conocer y dar a conocer los últimos avances con respecto al amplio marco de la tecnología sanitaria, se ha asignado para el ejercicio de 2010 la cantidad de 90.000 euros.

II.– Teniendo en cuenta el impulso que esta Dirección General trata de dar a diversas áreas y temáticas de índole científico para la red sanitaria y en aras a facilitar dicho proceso.

Considerando que el reparto de las cuantías asignadas para cada centro resultaría escasa en muchos de los casos como para poder financiar aquellas actividades consideradas de interés prioritario tanto para el Ente como para el centro organizador.

Considerando que el interés de estas reuniones científicas trasciende el ámbito geográfico del centro organizador.

III.– En consecuencia, tanto por razones materiales como de índole territorial y de coordinación, se considera oportuno avocar el conocimiento y resolución de la convocatoria del presente ejercicio.

Y de conformidad con los siguientes

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Por la competencia directa para convocar las ayudas y resolver sobre su adjudicación, dentro del ámbito de gestión ordinaria, el artículo 15.1.d) del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del Ente Público «Osakidetza», que enuncia como facultades de las organizaciones de servicios del Ente Público en la fi-

«Bere erakundean ikerketa, irakaskuntza eta prestakuntza zuzendu eta bultzatzea».

Zuzendaritza Medikoari dekretu horren 15.2 artikuluan ematen zaionarekin osatzen da eskumen hori. Honela dio bigarren eskumen horrek: «Medikuen irakaskuntza eta ikerketa sustatzea eta begiratzea». 15.4 artikuluak dioenez, kontseilu teknikoei ere beste eskumen bat ematen zaie: «Ikerketan, irakaskuntzan eta prestakuntzan ekintza-ildoak proposatzea».

Bigarrena.– Goragokoak eskumena bereganatzen du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 14. artikuluak honako hau xedatzen baitu (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeaz aldatu zen lege hura).

«1.– Goragoko organoek berenganatu egin dezakete beren mendeko organoek ohiz edo eskuordetzez ebatzi beharreko gai baten ardura, arrazoi tekniko, ekonomiko, juridiko edota gizartearen edo lurraldearen aldetikoek hala eskatzen badute.

2.– Goragokoak eskumenak bereganatzeko arrazoitu egin behar du beti erabakia, eta jakinarazi prozedurako interesdunei, halakorik balitz, azken ebazpenaren aurretik.

Eskumenak bereganatzeko erabakiari ezin zaio errekurtsorik jarri; dena den, aurka egin ahal izango zaio prozeduraren ebazpenari jarritako errekurtsoan, jartzen bada».

Azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 5.2 artikuluak dioenez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia zerbitzu-erakundeetako zuzendari gerenteak baino gorago dago hierarkian.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Sinatzaileak bereganatu egin du Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoari atxikiak dauden osasun-zerbitzuetako erakunde publikoek bilera zientifikoak antolatzeko laguntzen deialdia egiteko eskumena.

Bigarrena.– Ebazpen hau zerbitzu-erakundeei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen.

Ebazpen hau behin betikoa da, eta haren kontra ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 10a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

gura de su Director/a Gerente «dirigir e impulsar la investigación, docencia y formación en el seno de su organización».

Competencia que se complementa con la atribuida a la Dirección Médica en el artículo 15.2 del mismo cuerpo legal de «promover y supervisar las actividades de docencia e investigación del personal facultativo» y a los Consejos Técnicos para, conforme al artículo 15.4, «propuesta de líneas de actuación en materia de investigación, docencia y formación».

Segundo.– Por la avocación, el artículo 14 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero), a cuyo tenor:

«1.– Los órganos superiores podrán avocar para sí el conocimiento de un asunto cuya resolución corresponda ordinariamente o por delegación a sus órganos administrativos dependientes, cuando circunstancias de índole técnica, económica social, jurídica o territorial lo hagan conveniente.

2.– En todo caso, la avocación se realizará mediante acuerdo motivado que deberá ser notificado a los interesados en el procedimiento, si los hubiere, con anterioridad a la resolución final que se dicte.

Contra el acuerdo de avocación no cabrá recurso, aunque podrá impugnarse en el recurso que, en su caso, se interponga contra la resolución del procedimiento».

Y el artículo 5.2 del enunciado Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, que señala al Director General de Osakidetza como superior jerárquico de los directores gerentes de las organizaciones de servicios.

RESUELVO:

Primero.– Avocar para quien suscribe la competencia para la convocatoria y resolución de las ayudas para la organización de reuniones científicas a las organizaciones públicas de servicios sanitarios dependientes del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza.

Segundo.– Notificar la presente Resolución a las organizaciones de servicios a efectos de conocimiento y difusión.

Contra la presente Resolución, que es definitiva, no cabe recurso alguno.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de junio de 2010.

El Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.